



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 30a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Iruñeko Udalaren eta Azvase enpresaren arteko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (17. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).
 - IV.4. Gomendioen jarraipena (5. or.).
- V. 2009ko kontu orokor bateratuaren laburpena (6. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (6. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (7. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (7. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (8. or.).
 - V.5. Galera eta irabazien kontua (9. or.).

VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (10. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (10. or.).

VI.2. Langileak (11. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (11. or.).

VI.4. Inbertsioak (12. or.).

VI.5. Dirusarrerak (13. or.).

VI.6. Inbentarioa-lbilgetua (13. or.).

VI.7. Gorabeherak (13. or.).

VI.8. Hirigintza (14. or.).

1. eranskina. Antsoaingo Udalaren organigrama (15. or.).

Antsoaingo Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2009ko abenduaren 31ri dagokiona

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

2010eko ekitaldirako bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua erakunde autonomoaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalak 1,91 km² dauzka eta 10.500 biztanle zeuzkan 2009ko urtarrilaren 1ean.

Hona Antsoaingo Udalak eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuak 2009ko abenduaren 31n zeuzkaten zifra adierazgarrienak:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	11.150.338	10.052.533	73
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	502.412	186.604	3
Guztira	11.652.750	10.239.137	76

Udalak haren erakunde autonomoari –Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari– 2009an egitako ekarpena 315.808 eurokoa izan da.

2009ko urtarrilean, udalak Osoko Bilkuran hartutako erabaki baten bidez onetsi zen Euskara Sustatzeko Patronatua desegitea, eta Udalaren Euskara Zerbitzua sortu zen, bai eta haren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua ere.

Udala Iruñerriko Mankomunitatea sartuta dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hirigarraiokoak. Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ere parte hartzen du, eta haren bidez ematen ditu ondoko zerbitzuak: etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzaroa eta familia, gizarteratzea eta lan munduan sartzea, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Orobat parte hartzen du Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan, zeina Burlatan baitago, eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateari buruz ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituena.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009rako exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia adierazten dugu. Bosgarrenean, Antsoingo Udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri nagusiak azaltzen dira. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, bi eranskin jaso dira: bata entitatearen organigramarekin, eta bestea udalak 2009ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoingo Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregelartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen kontu orokorrak fidelki islatzen ote dituen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2009an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) 2009ko abenduaren 31n udalak zeukan egoera finantzarioa.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoaren –Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuaren– kontua: aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoaren diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoaren egoera-balantzea.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoaren galera eta irabazien kontua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren kontu bateratuak.

- Zorraren egoera-orria eta oroitidazkia.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguru-

barren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoari dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarritzko alderdiak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoaingo Udalaren 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2009KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa 1995ekoa da. Ibilgetuko kontuen zati bat azterten ari da. Horrek bidea emanen luke hura gaurkotzeko.

Aurreko lerrokadan aipaturiko salbuespenarengatik izan ezik, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2009ko jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3 2009KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

Antsoaingo Udalaren hasierako aurrekontu bateratua 9.488.179 eurokoa da, eta behin betikoa, 11.046.191 eurokoa. Haren betetze maila ehuneko 89koa izan da gastuei dagokienez, eta ehuneko 49koa diru-sarrerari dagokienez (ehuneko 86,

diruzaintza-gerakinen bidez finantzatutako aurrekontu aldaketak aintzat hartu gabe).

Aitorturiko betebeharrak bateratuek, 2009an, 11,7 milioi euro egin dute eta aitorturiko eskubide bateratuek, berriz, 10,2 milioi euro.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuek berdin jarraitu dute, kapital-eragiketarako gastuak ehuneko 9 jaitsi direlako eta gastu arruntak ehuneko 4 igo direlako. Diru-sarrerak, guztia, ehuneko 18 jaitsi dira 2008aren aldean, kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 39 jaitsi direlako, eta diru-sarrera arruntak, ehuneko 6, eraikuntzaren sektoreko jarduera motelagoarengatik.

Aurrekontuko emaitza bateratu dituzten 878.303 euroko defizita izan du, 2008koaren bikoitza baino gehiago hain zuzen ere (-348.212 euro).

	Aurrekontu-emaitza doitua	Aurrezpen gordina*	Aurrezki garbia	Gastu orokorretarako gerakina	Diruzaintza- gerakina, guztira
2007	333.250	1.238.370	984.270	2.791.062	5.101.341
2008	-348.212	255.286	-44.641	2.493.062	5.960.989
2009	-878.303	-635.653	-878.303	1.528.775	4.617.840

Epe luzeko zor bateratua 1,9 milioi eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n. Ekitaldiko diru-sarrera arruntan gainean finantza-zamak egiten duen zorpetze-maila ehuneko 3,28koa da.

Ikuspuntu finantzario batetik, Antsoingo Udalak ehuneko 23 jaitsi du diruzaintza-gerakina 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, 2009ko aurrekontuko defizita dela-eta, eta halere 4,6 milioi euroko diruzaintza-gerakina du 2009ko abenduaren 31n. Egoera hori heldu da, neurri batean, eraikuntzarekin lotutako diru-sarrerak jaitsi direlako eta gastu arruntak igo direlako, eta beharrezkoa egiten du neurriak hartzea gastuari eusteko edo finantzaketa-iturri berriak bilatzeko, zerbitzuen kostua finantzatu ahal izate aldera.

2009an nabarmen areagotu da 2008an hasitako joera-aldaketa, eraikuntzako sektorearekin lotutako diru-sarrerak jaitsi direlako. Hortaz, diru-sarrera arruntak ez dira aski izan udalak ematen dituen zerbitzuen funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko (878.303 euro; 2008an, berriz, 44.641 euro). Gastuen eta diru-sarreraren arteko desoreka hori aurreko ekitaldietako aurrekontu-emaitza positiboek sortutako diruzaintza-gerakinen bidez finantzatu da.

Guztizko diruzaintza-gerakin bateratua, 2009ko abenduaren 31n 4,6 milioi eurokoa zena, ehuneko 23 jaitsi da 2008arekin alderatuta. Gerakin horretatik, 2008ko 2,5 milioi eurotik 2009ko 1,5 milioi eurora igaro da gastu orokorrak finantzatzera bideratzen dena.

Aurreko ekitaldiekin alderatuta ikus daiteke ondoko adierazleek okerrera egin dutela:

IV.4. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, zeina 2009ko ekitaldiari buruzkoa baita eta 2010eko otsailean argitaratu baitzen, honako gomendio hauek bete dira edo ezartzeko bidean daude:

- *Aztertzea erakunde autonomoak udal zerbitzu bihurtzeko aukera, efizientzia, eraginkortasun eta kontrol irizpideei jarraikiz.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan daitezen.*

- *Udal ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.*

V. 2009KO KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA

V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorritiko		Ordain- ketak (%)	Ordaintzeko dagoena
				betebehar garbiak	Betetzea (%)		
1 Langile-gastuak	3.842.599	-2.000	3.840.599	3.414.827	% 89	% 99	47.763
2 Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.358.152	12.900	4.371.052	4.092.555	% 94	% 90	393.840
3 Gastu finantzarioak	133.277	-24.809	108.468	88.878	% 82	% 100	
4 Transferentzia arruntak	579.095	6.200	585.295	521.728	% 89	% 87	68.756
6 Inbertsio errealak	2.859.241	1.117.613	3.976.854	3.380.990	% 85	% 93	241.310
9 Pasibo finantzarioak	152.858	915	153.773	153.772	% 100	% 100	
Gastuak_guztira	11.925.223	1.110.819	13.036.041	11.652.750	% 89	% 94	751.669

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko		Aitorritiko eskubide garbiak	Kobratutakoa Kobran- tzak (%)	Kobratzeko dagoena
			aurreikus- penak	%			
1 Zuzeneko zergak	2.398.389		2.398.389	2.121.235	% 88	% 86	295.502
2 Zeharkako zergak	667.898		667.898	57.179	% 9	% 67	18.689
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.843.584		2.843.584	2.012.285	% 71	% 70	600.832
4 Transferentzia arruntak	2.975.010		2.975.010	2.995.648	% 101	% 95	143.782
5 Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua.	181.101		181.101	207.111	% 114	% 99	2.593
6 Inbertsio errealen besterenntzea.							
7 Kapital-transferentziak	2.859.241		2.859.241	2.845.680	% 100	% 80	560.612
8 Aktibo finantzarioak	1.110.819		1.110.819				
Diru-sarrerak_guztira	11.925.223	1.110.819	13.036.041	10.239.137	% 79	% 84	1.621.709

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	10.239.137	12.536.775
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-	-11.668.808
	11.652.750	
AURREKONTU EMAITZA	-1.413.613	867.967
AJUSTESDOITZEAK		
- Desviación financiación positiva- Finantzaketaren desbideratze positiboa	-131.151	-2.259.188
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa		979.296
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	666.461	63.713
= AURREKONTU EMAITZA DOITUA	-878.303	-348.212

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

ConceptoKontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	2.312.679	1.987.642
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.622.595	1.195.833
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.088.211	1.171.479
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	117.647	219.857
+ Ordainketen itzulketak	-	210
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-	-
- Bilketa zaileko eskubideak	-515.774	-599.737
- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	1.903.262	2.090.299
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	751.669	1.444.930
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	219.412	221.627
+ Diru-sarreraren itzulketak	1.565	3.379
- Aplikatzeke dauden gastuak	-561	-184
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	931.177	420.547
+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK	4.208.423	6.063.646
+ Finantziario-desbideratze metatu negatiboak	-	-
= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA	4.617.840	5.960.989
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	-	-
Baliabide atxikien ondoriozko diruzaintzako gerakina	3.089.065	3.467.927
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.528.775	2.493.062

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

Deskribapena	2009	2008
A IBILGETUA	61.045.125	58.869.220
1 Ibilgetu materiala	23.909.207	22.346.441
2 Ibilgetu ez-materiala	475.554	527.414
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	36.642.292	35.977.293
4 Herri-ondasunak	15.730	15.730
5 Ibilgetu finantzarioa	2.342	2.342
C ZIRKULATZAILEA	8.972.120	8.651.628
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	2.828.453	2.587.379
9 Kontu finantzarioak	4.209.529	6.064.249
10 Finantzaletaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	-	-
11 Aplikatzeko dagoen emaitza	1.934.138	-
AKTIBOA, GUZTIRA	70.017.245	67.520.848

PASIBOA

Deskribapena	2009	2008
A FUNTS BEREKIAK	66.251.880	63.415.051
1 Ondarea eta erreserbak	58.383.380	56.759.953
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	-	1.623.428
3 Kapitaleko diru-laguntzak	7.868.500	5.031.670
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.861.542	2.015.314
4 Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak	1.861.542	2.015.314
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.903.823	2.090.483
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.903.823	2.090.483
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	-	-
PASIBOA, GUZTIRA	70.017.245	67.520.848

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2009	Zenbatekoa, 2008	DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2009	Zenbatekoa, 2008
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.496.884	1.426.208
61 Langileria gastuak	3.479.745	3.308.143	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	630.579	896.401
62 Finantza-gastuak	88.878	156.182	72 Produzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.427.087	1.817.412
63 Tributuak	26.356	25.319	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	447.930	416.375
64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	4.001.281	3.801.569	75 Diru-laguntzak Ustiapena	0	2.962.109
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.995.648	343.618
			77 Kapitalaren gaineko zergak	303.397	-48.791
67 Transferentzia arruntak	521.728	484.128	78 Bestelako diru-sarrerak	100.782	0
68. Kapital-transferentziak			79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak		
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	1.205.085	1.140.620			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)			800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.920.766	1.102.627
GUZTIRA	9.323.073	8.915.961	GUZTIRA	9.323.073	8.915.961

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	Zenbateko a, 2009	Zenbatekoa, 2008	AZALPENA	Zenbatekoa , 2009	Zenbatekoa , 2008
Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.920.766	1.102.627	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (Saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	2.845.281
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	75
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	13372	119.227	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa		
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)		1.623.428	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.934.138	0
GUZTIRA	1.934.138	2.845.282	GUZTIRA	1.934.138	2.845.282

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2009ko aurrekontuaren indarraldia ez zen hasi urte bereko abuztura arte, bere behin betiko onepena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Hona Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2009rako aurrekontu bateratuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2008koarekiko konparazioa:

	2009	2008	Zorraren aldaketa 09/08
Aitorturiko betebeharrak	11.652.750	11.668.808	% 0
Likidaturiko eskubideak	10.239.137	12.536.775	% -18
Gastu arruntak (1etik 4ra)	8.117.988	7.775.341	% 4
Kapital gastuak (6tik 9ra)	3.534.762	3.893.468	% -9
Gastu arruntak (1etik 5era)	7.393.457	7.874.455	% -6
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	2.845.680	4.662.320	% -39
Aurrekontu-emaiza doitua	-878.303	-348.212	
Aurrezki gordina	-635.653	255.296	% -349
Finantza-karga	242.650	299.937	% -19
Aurrezpen garbia	-878.303	-44.641	867
Zorpetze mailaren %	% 3,28	% 3,81	
Zorpetze mugaren %	% -8,60	% 3,24	
Zorpetze-ahalmenaren %	% -11,88	% -0,57	
Diruzaintzako gerakina, guztira	4.617.840	5.960.989	% -23
Gerakina, baliabide atxikiak sortua	3.089.065	3.467.927	% -11
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.528.775	2.493.062	% -39

Datu horien azterketan ikus daiteke diru-sarrera arruntak ez direla aski izan gastu arruntak finantzatzeko, eta, horrenbestez, udalak, azken urteetan lehen aldiz, aurrezki gordin negatiboa izan du. Hartara, ez du zorpetze-gaitasunik eta aurreko ekitaldietan sortutako diruzaintza-gerakina murriztu da.

Gastu arruntei dagokienez, langile-gastuek ehuneko 42 egiten dute, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak, berriz, ehuneko 50. Diru-sarrerara arruntei dagokienez, ehuneko 29 zuzeneko zergetatik heldu dira, ehuneko 27 tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretatik eta ehuneko 41 transferentzia arruntetatik.

Udalak "Urteko kontu bateratuei buruzko txostena" izeneko eranskinean agerian jarri duenez, eutsiezina da 2009ko ekitaldiko defizit handia, funtzionamendu-gastuak igo izanaren ondorioz sortu dena; izan ere, ematen diren zerbitzuak handitu dira eta asko jaitsi dira eraikuntzaren mende dauden diru-sarrerak. Orobat esaten da ahalik eta azkarren jarri beharko zaiola konponbide bat.

Informazio xede hutsetarako, adierazi behar dugu lau zerbitzutan⁽¹⁾ udaleko gastu arrunten ehuneko 56 kontsumitzen dutela: Kirolak (ehuneko 28); Segurtasuna eta polizia (ehuneko 13), Haurtzaindegi edo haur eskolak (ehuneko 9) eta Kultura (ehuneko 6).

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garranturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera

Hona gure gomendioak:

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarriko lanabesa izan daitezen.*

- *Egungo egoera ekonomikoa eta udalaren diru-sarreraren bilakaera kontuan hartuta, hurrengo aurrekontuetan aintzat hartu behar dira egun ematen diren zerbitzuek nahiz inbertsio-proiektu berriek eragindako gastu arruntak.*

VI.2 LANGILEAK

1. kapituluaren –“Langile-gastuak”– 3.414.827 euroko betebeharrak aitortu bateratuak erregistratu dira; alegia, 2009an sortutako gastuen ehuneko 29 eta gastu arruntaren ehuneko 42. Kapitulu horretako betetze maila ehuneko 89koa izan da, eta 2008arekin alderatuta ehuneko 5 igo da.

Kapitulu horretako gastu bateratutik, udalari 3.254.363 euro dagozkio, eta Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari, berriz, 160.464 euro.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009rako plantilla organikoa behin betiko onetsi zen 2009ko abuztuaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin. Ehuneko 32 inguru dira hutsik dauden lanpostuak.

Udalak onetsi zuen “Antsoaingo Udalaren eta bere Patronatuaren zerbitzuko funtzionarioen lan baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako”. Jaiegunetan lan egiteagatik hitzarmen horretako 10. artikuluan ezartzen den ordainsaria Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako antolamendu juridiko-

an ezarritakoaz harantzago doa, batez ere jaiegun ez diren egunetako lanaldiaren zati bat jaiegun gisa jasotzen duelako.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, behar bezala kontabilizatuta daudela langileria-gastuak eta egindako atxikienak zuzenak direla.

Hona gure gomendioak:

- *Aztertzea plantilla organikoa egokitzen ote zaien egiazko langile-premiei, ikusita lanpostu huts asko dagoela.*

- *Udalaren lan baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako antolamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaiegun zer diren ezarritakoari dagokionez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuak 4.092.555 eurora iritsi dira 2009an. Kopuru horretatik, 3.751.811 euro udalari dagozkio, eta 340.744 euro Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari.

Betebeharrak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 35 hartzen dute, eta eragiketa arruntaren gastuen ehuneko 50. Ehuneko 5 igo dira 2008arekin alderatuz gero.

Zerbitzuak kontratatze hurrengo espedientea aztertu dugu:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Musika hizkuntzaren irakaskuntza	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	89.400

Espediente horri eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela.

VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak direla-eta aitorturiko betebeharrak bateratuek 3.380.990 euro egiten dute, betetze

maila ehuneko 85ekoa izan da, eta 2009rako aurrekontuan betetakoaren ehuneko 29 egiten dute. 2008ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 10 egiten dute behera.

Zenbateko handieneko obrak ondoko proiektuei dagozkie (9/2008 Errege Dekretu Legeak arautzen duen toki-inbertsioko estatu-funtseko baliabideekin finantzatu dira hein batean, 1.776.785 euro jarri baititu guztira):

	Betetakoa, guztira	Toki-inbertsioko estatu-funtsa
Liburutegi publiko berriaren lokalak	934.890	803.873
Erabilera anitzeko lokala	555.206	487.113
Musika Eskolako lokaletako obrak	234.014	208.800
Ezkaba mendiko gune publikoak leheneratzea eta kontserbatzea	295.082	276.999
	2.019.192	1.776.785

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta 2009an egindako ondoko esleipenak aztertu dira:

	Kontratu- mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Lorategi eta obra zerbitzurako makina kargatzailea	Hornigaiak	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	48.140
Igerilekuetako obren proiektua, legionelosiari aurrea hartzeko	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	51.997
Liburutegiaren proiektua idaztea	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	101.616
Liburutegi publikoa	Obra	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	803.874
Ezkaba mendiko gune publikoak leheneratzea eta kontserbatzea	Obra	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	276.999
Erabilera anitzeko gelaren proiektua idaztea	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	54.230
Erabilera anitzeko lokala	Obra	Negoziatua, Europar Batasunean publikizate eginda	476.760
Musika eskola	Obra	Negoziatua, Europar Batasunean publikizaterik egin gabea	197.200

Eginiko azterketan oinarriturik egiaztatu da kontratuei buruzko legedia bete egiten dela bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean ere, haien alderdirik aipagarrietan, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5 DIRUSARRERAK

2009ko ekitaldian aitorturiko eskubide bateratuek 10.239.137,03 euro egiten dute; 10.052.533 euro Udalari dagozkio, eta 186.604 euro, berriz, Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuari.

Diru-sarreraren arloko betetze maila ehuneko 86koa izan da, baldin eta ez badugu kontuan hartzen diruzaintza-gerakinarekin aurreikusitako finantzaketa. Betetze maila ez da izan ehuneko ehuneko ez direlako bete eraikuntzarekin eta kirol instalazioekin lotutako diru-sarreraren gaineko aurreikuspenak.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, aitorturiko eskubide bateratuak ehuneko 18 jaitسي dira. Hona, kapituluz kapitulu:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2009	Aitorturiko eskubide garbiak, 2008	Aldea, ehunekotan 09/08
1 Zuzeneko zergak	2.121.235	1.909.214	% 11
2 Zeharkako zergak	57.179	668.191	% -91
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.012.285	2.037.563	% -1
4 Transferentzia arruntak	2.995.648	2.962.109	% 1
5 Ondare diru-sarrerak	207.110	297.378	% -30
Gastu arruntak (1etik 5era)	7.393.457	7.874.455	% -6
6 Inbertsio errealeen besterentzea		3.746.901	% -100
7 Kapital transferentziak	2.845.680	915.419	% 211
8 Finantza-aktiboak		-	
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	2.845.680	4.662.320	% -39
Diru-sarrerak, guztira	10.239.137	12.536.775	% -18

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Hona gure gomendioak:

- Diru-sarreraren aurrekontua egitea egiazko aukeren arabera, egungo egoera ekonomikoa kontuan izanda.

VI.6. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotu gabe dago. 2007an, halere, zenbait udal zerbitzuren kostuei buruzko azterlanaren karietara, zenbait ibilgetu-kontu aztertu ziren, eta horrek bide ematen zuen 1995eko inbentarioa aztertzeke.

2009ko abenduaren 31n, egiteke dago, ibilgetuaren zenbateko osoari dagokionez (61.045.125 euro), "Azpiegiturak eta erabilera orokorrera bideratutako ondasunak" kapituluaren kontuen azterketa (36.642.292 euro).

Hona gure gomendioak:

- Udal ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.

- Udal-inbentarioa etengabe eguneratzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea ematen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatzeke prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.

VI.7. GORABEHERAK

Udala, emandako informazioaren arabera, zenbait prozedura judizialean sarturik dago. Hona 2009ko abenduaren 31n nabarmendu beharrekoak:

- Kirol instalazio berriak eraiki dituen enpresaren erreklamazioa, 2007an detektatu, egin eta kontabilizatutako eraikuntza-gabeziak konpontzeko obren ordezkio exekuzioan eginiko gastuen likidazioaren aurkakoa; guztira, 362.256,87 euro dira.

- “Antzinako igerilekuak egitea” proiektua idatzi zuen arkitektoaren erreklamazioa, antzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordezeko exekuzioan eginiko gastuen eta sorturiko kalte-galeren likidazioaren aurka; 366.174,39 euro egiten ditu, eta horri gehitu behar zaizkio errekarrien eta kostuen 36.619,98 euro.

- Eraikuntza enpresa baten erreklamazioak, tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziarengatik tasen bi likidazioen aurkakoak, bata 35.609,54 eurokoa (nagusia gehi errekarriak eta kostuak) eta bestea 25.798,50 eurokoa; jabari publikoaren okupazioa (aldamioekin eta hesiekin) U.6 unitateko 23. lurzatian etxebizitzan eraikin bat altzatzean gertatu zen.

VI.8. HIRIGINTZA

Antsoingo Udal Plana (Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspena) 1997an onetsi zen.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

2009an ekin zaio Antsoingo Udal Plana berrikusteari; halatan, Udalaren eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren alde aurreko hitzarmena eta Udal Plan Orokor berria taxutzeko eta idazteko Lankidetzaren Hitzarmena onetsi dira.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondareari buruzko erregistro eta inbentario berariazkorik, baina hartatik heldu diren baliabideen jarraipena egiten du.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzeta.*


- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela, izaeraz.*

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. Eranskina Antsoaingo Udalaren organigrama



Iruñeko Udalaren eta Azvase enpresaren arteko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Iruñeko Udalaren eta Azvase enpresaren arteko kontratuari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Iruñeko Udalaren eta Azvase enpresaren arteko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (17. or.).
 - II. Aurrekariak (17. or.).
 - III. Helburua, norainokoa eta mugak (18. or.).
 - IV. Iritzia eta gomendio orokorrak (19. or.).
 - V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (19. or.).
 - V.1. Esleipena (19. or.).
 - V.2. Betetzea (20. or.).
 - V.2.1. 2007ko apirila-2008ko martxo (20. or.).
 - V.2.2. 2008ko apirila-2009ko martxo (20. or.).
 - V.2.3. 2009ko apirila-2010eko martxo (21. or.).
 - V.2.4. Kontratuaren luzapena (21. or.).
 - V.3. Errekurtsoa (21. or.).
 - V.4. Bestelakoak (22. or.).
- Iruñeko Udalak behin-behineko txostenaria egindako iruzkinak (24. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hala eskatuta, Comptos Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan Iruñeko Udalaren eta Azvase enpresaren arteko kontratuari buruz.

Nafarroako Comptos Ganberan maiatzaren 4an sartu zen gutunean ondokoa zioen Iruñeko alkateak: "Iruñeko Udalak iragan martxoaren 4an egindako bilkuraren ostean, gutun honen bidez eskatu nahi dizut fiskalizazio txosten bat egiteko, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emate aldera udalak Azvase, S.L. enpresarekin sinatuta daukan kontratuari buruz."

Nafarroako Comptos Ganberak 2010erako fiskalizazio programan sartu zuen lan hori.

Auditore batek eta auditoriako bi teknikariek osatutako lan-talde batek egin du lana. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean aurkezten diren aurrekariak irakurleari aukera ematen diote kontratuaren xede den zerbitzuaren aurrean jartzeko. Hirugarrenean aurkezten dira txostenaren helburua eta norainokoa. Laugarrenean aurkezten dira iritzia eta gomendio orokorrak, eta bosgarrenean iritzi horren oinarrian dauden iruzkinak, ondorioak eta gomendioak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Iruñeko Udaleko eta Asimec enpresa publikoko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. AURREKARIAK

Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretu bidez onetsitako Gizarte Zerbitzuen Zorroan eskaintzen diren zerbitzuak eta prestazioak lau kategoria hauetan bil daitezke:

- Prebentzioa eta Sustapena.
- Prestazio ekonomikoa.
- Etxean gelditzea.
- Egoitzako laguntza.

Foru eta toki administrazioak ematen ditu zerbitzu horiek, baliabide berekien bidez nahiz enpresa pribatuekiko lankidetzaz bidez.

Nor bere etxean egon dadin errazte aldera aurreikusitako zerbitzuetako bat da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ). Zerbitzua udal kudeatzen dute, eta horiek, Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenen bidez, zerbitzuaren zati bat finantzatzea lortzen dute; beste zati bat erabiltzaileak ordaintzen du, eta gainerakoa toki entitatearen kargura da.

EELZ, funtsean, egunean gehienez ere bi orduz laguntzeaz arduratzen da –norberaren garbitasuna, etxearen garbiketa eta akonpainamendua (sendagilera joateko, zuzemenak egiteko...)–, nor bere etxean egon ahal izatea errazteko helburuarekin.

Iruñeko Udala laurogeita hamarrekota hamarkadaren azken urteetan hasi zen zerbitzu hori ematen, formula bikoitza erabilita. Alde batetik, baliabide berekien bidez, eta, bestetik, Miluce kooperatibarekiko kontratazioaren bidez (entitate hori Gaztelanetik sortua da, zeina enpresen sorrera bultzatzen duen enpresa bat baita, kasu askotan egoera zailean dauden langileekin). Geroago, esleipen-hartzailea AMMA izan zen, eta 2007an Azvase enpresak lortu zuen kontratua.

Baliabide berekien bidezko kudeaketarako, etxez etxeko laguntzaileen 35 lanpostu sartu ziren udal plantillan, bitarteko izaeraz bete zirenak, harik eta lanpostuak betetzeko deialdia egin arte. Lanpostuen deialdia ez zen egin, eta sindikatuen errekurso baten ondorioz heldu zen epaiak udala behartu zuen lanpostuak lan eskaintza publikoan sartzera. Halatan, 2007ko hauteskundeetatik sortu zen korporazioak ASIMEC enpresa publikoa sortzea erabaki zuen 2008an, zerbitzu hori emateko. Bitarteko langileek ASIMECen sartzeko asmoz aurkeztutako zenbait errekurtsoren ostean, 2009ko uztaietan behin betikoz bete ziren enpresa publikoko 35 lanpostu, kasuko oposizioa eginez.

Alegia, udalak epaia bete zuen, lanpostuak lan eskaintza publikoan sartuta, eta, geroago, zerbitzua kudeatze aldera, enpresa publiko bat sortu zuen, zeinetara eraman baitzituen lanpostu horiek.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua kontratatzeko espedientea 2006ko abenduaren 19an onetsi zen, zerbitzua 2007tik aitzina eta urtebetez emateko, lau urtera bitarte luzatzeko aukerarekin.

Esleipena 2007ko martxoan egin zen.

Agindu teknikoen pleguaren arabera, zerbitzuak berekin zekarren gutxienez ere 80.000 ordu ematea etxez etxeko laguntzan, eta gehienez ere 120.000 ordu.

Kontratuaren balio zenbatetsia 10.459.200 eurokoa zen, BEZik gabe, eta urteko gehieneko aurrekontua, berriz, 2.614.800 eurokoa, BEZik gabe.

Esleipena egiteko, besteak beste, ordu bakoitzeko prezioa hartuko da aintzat, zeina gehienez ere 21,79 eurokoa izanen baita, BEZik gabe.

Esleipen-hartzailea behartuta egonen da subrogatzera, ordura bitarteko esleipen-hartzaile-

ko langileen lan-kontratuei nahiz gainontzeko baldintza ekonomiko eta sozialei dagokienez. Subrogazioa egitean AMMA ASISTENCIAL enpresarekiko hitzarmenean ezarritako baldintzak errespetatuko dira (hitzarmena 2006ko urriaren 16an sinatu zen).

Kontratua orduko 18,52 euroan esleitu zen, BEZik gabe (19,81 euro, BEZarekin).

Kontratua indarrean egon den bitartean Azvasek erreklamazio bat aurkeztu du, etxe batetik beste batera joateko denbora zerbitzuko denbora gisa zenbatets dadin. Udalak uste du hori ez dela horrela izan behar. Administrazioarekiko auzien salaren epaiak udalari eman dio arrazoaia.

2009ko irailaren 30ean, enpresak jakinarazi zuen ez zeukala kontratua luzatzeko asmorik, eta 2010eko martxoaren 30ean bukatu zen zerbitzua-aren prestazioa.

2010ean beste lehiaketa baten deialdia egin zen (gehienez ere urteko 120.000 orduko), eta Azvase enpresa izan zen berriz ere esleipen-hartzailea. Lizitazio berri horren prezioa, ordu bakoitzeko, 27,50 eurokoa zen, BEZik gabe, eta orduko 24,75 euroan esleitu zen, BEZik gabe (25,74 BEZarekin).

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburua da erantzun bat ematea Parlamentuaren eta udalaren eskariei, eta, horrenbestez, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emate aldera Iruñeko Udalak eta Azvase enpresak 2007an sinatutako kontratua fiskalizatzea.

Helburu nagusi horrekin batera, zerbitzua enpresa publiko baten eta kontratupeko beste baten bidez emateak dakartzan ondorioak aztertuko dira.

Lana egiteko, Azvase enpresaren kontratazio-espedientea eta horren betetzeari buruz dagoen dokumentazioa aztertu dira. ASIMEC-i buruzko dokumentazioa aztertu da, bai eta etxez etxeko laguntza zerbitzuari buruz udalak eman dizkigun azterlanak eta Azvasek aurkeztutako errekursoari buruz dagoen dokumentazioa ere.

Lana egin da sektore publikoaren auditoriari dagokienez Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Comptos Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta araei jarraituz.

Lana mugatuta egon da; izan ere, zaila da datuak erkatzea, bi enpresek baliatzen dituzten kudeaketa-ereduak ezberdinak direlako, enpresek

udal zerbitzuei aurkeztutako datuak homogeneous ez direlako eta dauden datuen tratamendua sistematikoa ez delako.

IV. IRITZIA ETA GOMENDIO OROKORRAK

Nafarroako Comptos Ganberak eginiko lanetik ondoko iritzia heldu da:

Esleipenari buruz:

Kontratazio arloko araudian ezarritako izapideekin bat esleitu da kontratua.

Exekuzioari buruz:

Zerbitzuaren gaineko eskaria aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, eta hasieran kontratatutako orduak baino ehuneko 30 gehiago inguru egin dira hiru urteotan; hartara, kontratuan kasuan kasuko aldaketak egin behar izan dira, zenbaitetan lanak egin ostean egin ere.

Hilabete batzuetako fakturretan, behar baino ordu gehiago fakturatu ditu enpresak (udal zerbitzuek egiaztatu dutenez, 734 ordu eta 15.156 euro), ondoko hilabeteetan erregularizatu direnak.

Enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du, joan-etorrietako denbora laneko denbora gisa zenbatzeari buruzkoa. Epaia udalaren aldekoa izan da (78.448 euro itzultzea eskatu du kontzeptu hori dela eta).

Udalak 2009ko abenduko faktura bat atxiki zuen, 144.927 eurokoa. Faktura horren erregularizazioa eta epaiaren zenbatekoa 2010eko abenduan egin da.

2009ko irailean, enpresak jakinarazi zuen ez zeukala 2010eko martxotik aitzina kontratua luzatzeko asmorik.

Beste auzi batzuei buruz:

Zerbitzua, funtsean, bi enpresak ematen dute –bata kontratupekoa da, eta bestea udalarena–, eta zein bere irizpideen arabera jarduten da.

Enpresek udal zerbitzuei aurkeztutako datuak ez direnez homogeneous, zail da zerbitzuaren informazio globala prestatzea, eta ikusi ahal izan denez, enpresak lan egindako ordu gisa zenbatutakoak baino ordu gutxiago fakturatzen zaizkie erabiltzaileei.

Bi enpresek egindako lana elkarri gainjartzen zaio auzo guztietan eta, zenbaitetan, erabiltzaile berberengan.

Erabiltzaileen gogobetetasun-inkestak erakusten duenez, zerbitzua, oro har, ongi baloratuta dago, eta erabiltzaileek ez dute bereizten familia-

langileak zer enpresatakoak diren, haien erreferentzia udala baita.

Hori dela eta, hona gure gomendioak:

– Lana egin aurretik egitea kontratuen gaineko aldaketak.

– Aztertzea ea egungo kudeaketa-sistemak mesede egiten dion dauden baliabideak hobeki aprobetxatzeari, eta, kasua bada, beste aukera batzuk aztertzea, esate baterako entitate bakar baten bidezko kudeaketa, auzoen araberrako banaketa egitea entitateen artean, eta abar. Hori guztia, kontuan hartuta zerbitzuaren helburu nagusia dela mendetasun maila handiagoa edo txikiagoa duten pertsonen laguntzea, nor bere etxean egon ahal izan dadin.

– Informazio-sistema homogeneo bat ezartzea bi enpresentzat, halako moduan non zerbitzuaren arduradunek behar dituzten datuak izanen dituzten, zerbitzua bere osotasunean aztertzeko, eta erabiltzaileei egiaz lan egindako orduak fakturatu ahal izateko, udalak ordainarazitakoen eta egiaz egindakoen arteko alderik gertatu gabe.

– Argi ezartzea enpresen artean lanak esleitzeko irizpideak, eta horien eta udalaren arteko harremanak orain arte bezalakoak izaten jarraitzen badu, saiatzeari ASIMECek lana izan dezan dituen ordu guztietarako, eta gainontzekoak Azvaseri igorri.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan aurkezten ditugu lan honi eragiten dioten gertakari nagusiak, arestian emandako iritzia ulertzen laguntzen baitute, bai eta egindako lanetik heldu diren ondorioak eta gomendioak ere.

V.1. ESLEIPENA

Kontratazio-espeditatea –zerbitzua urtebetez ematekoa, lau urtera bitarte luzatzeko aukerarekin– 2006ko abenduan onetsi zen. Urtean gehienez ere 120.000 ordu eginen direla uste da (ordu bakoitza 21,79 euroan, BEZik gabe); hortaz, kontratuaren gehieneko balioa, lau urteetarako, 10.459.200 eurokoa izanen da, BEZik gabe.

Esleipena prozedura ireki bidez egiten zaio eskaintzarik onenari. Zerbitzuaren prestazioari buruzko proiektua 70 puntura bitarte baloratzen da, eta eskaintza ekonomikoa, berriz, 30 puntura bitarte.

Esleipen-hartzailea behartuta dago subrogatzaile lan-kontratuarekin eta gaur egungo esleipen-hartzaileak kontratuaren xedea betetze aldera

bideratutako gainontzeko baldintza ekonomiko eta sozialetan, AMMA ASISTENCIALEko enpresa hitzarmenaren aurrekordioan ezarritako baldintzak errespetatuta.

Lehiaketara sei enpresa aurkeztu ziren, eta, eskaintzarik onena zenez, Azvasek irabazi zuen lehiaketa, egin zuen eskaintza ehuneko 15 merkeagoa baitzen.

Kontratazio mahaiak eskatu zion, esleipen-proposamena egin aitzin, eskaintza ekonomiko orokorraren nahiz proiektu teknikoaren zenbait alderdiaren xehetasunak aurkez zitzen.

Esleipena 2007ko martxoan onetsi zen, eta jarraia 2007ko apirilaren 1ean abiatu zen. Ondoko taulan ageri den bezala banatzen da bi ekitaldietan urtebeterako ordu-aurreikuspena, ordu bakoitzeko 19,81 euroko prezioan (18,52 euro, BEZik gabe):

Urtea	Orduak	Prezioa	Zenbatekoa
2007	90.000	19,81	1.738.476
2008	30.000	19,81	594.492
Guztira	120.000		2.377.968

V.2. BETETZEA

V.2.1. 2007ko apirila-2008ko martxoa

Zerbitzua ematen hasi zen lehen hilabetetik gaudituz ziren aurreikusitako orduak, eta, horrenbestez, aurreikusitako 90.000 orduen lekuan 114.760 ordu egin ziren. Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko abenduaren 28an hartutako erabaki bidez

onetsi zen 26.000 ordu gehiagorako baimena ematea. Udal kontu-hartzaileak espedientean jasota utzi zuen igoera ehuneko 20tik goitikoa zela, eta, beraz, Kontratuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluko aldaketa-prozedura jarraitu beharra zegoela.

Hona aldaketa horren ondoriozko banaketa:

Urtea	Orduak	Prezioa	Zenbatekoa
2007	116.000	19,81	2.298.702
2008	4.000	19,81	79.266
Guztira	120.000		2.377.968

2008ko apirilaren 15eko erabaki bidez, 2008ko lehen hiru hilabeteetarako kontratua aldatu behar izan zen (38.000 ordu gehiago).

Alegia, hamabi hilabeterako kontratatutako 120.000 orduak (90.000+30.000) 153.691 bihurtu ziren egiatan (114.760+38.931), eta hasierako kreditua, 2.377.968 eurokoa, 3.045.596 eurokoa izatera igaro zen egiaz bete zenean.

Nabarmendu beharra dago martxoan bi faktura aurkeztu zirela. Lehendabizikoa 10.300 ordukoa

zen (204.108 euro), eta bigarrena, berriz, 1.022 ordukoa (20.260 euro).

Ordainketak egiteko adina kreditu ez zegoenez –aldaketa, izan ere, apirilean onetsi zen–, 10.533 euro ordaindu ziren berandutze interesetan.

V.2.2. 2008ko apirila-2009ko martxoa

2008ko apirilaren 15eko erabaki bidez onetsi zen kontratuaren lehen luzapena, ondoko banaketaren arabera:

Urtea	Orduak	Prezioa	Zenbatekoa
2008	90.000	20,65	1.858.383
2009	30.000	20,65	619.461
Guztira	120.000		2.477.844

2008ko abenduaren 23an kontratuaren aldaketa bat onetsi zen, 30.000 ordu gehiago baimenduta. Horietako 18.000 2008ko bederatzi hilabetei zegozkien, eta gainontzeko 12.000 orduak, berriz, 2009ko lehen hiru hilabetei.

Halatan, kontratatutako 120.000 orduak 148.949 ordu bilakatu ziren egiatan (110.682 eta 38.267), nahiz eta etxetik etxerako joan-etorrietako 2.657 ordu deskontatu fakturazioan.

Azpimarratu beharra dago iraileko fakturak sinatu arte denbora asko igaro zela, zerbitzuko teknikariek uko egin ziotelako sinatzeari, argi ez zeudelako eta akatsak detektatu zituztelako. Udal

zerbitzuek ekainetik irailera bitarteko orduei buruz egindako azterketatik ondorioztatu da behar baino 734 ordu gehiago fakturatu zirela –15.156 euro, alegia–, egiaztatu ahal izan denez ondoko hilabeteetan erregularizatu zirenak.

2008ko uztailean, Azvasek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen, joan-etorrietako denbora prestazio-denboraren barruan ez hartzeko erabakiaren aurka.

V.2.3. 2009ko apirila-2010eko martxoa

2009ko martxoaren 24an bigarren luzapena onetsi zen, ondoko banaketarekin bat:

Urtea	Orduak	Prezioa	Zenbatekoa
2009	90.000	20,90	1.880.685
2010	30.000	20,90	626.895
Guztira	120.000		2.507.580

2009ko abenduaren 22ko erabaki bidez kontratuaren aldaketa bat onetsi zen, 32.000 ordu gehiago baimenduta. Horietako 20.000 2009ko hilabetei zegozkien, eta 12.000, berriz, 2010eko lehen hiru hilabetei.

Halatan, kontratatutako 120.000 orduak 148.949 ordu bilakatu ziren egiatan (110.682 eta 38.267). 2009ko apiriletik abendura bitarteko 116.936 orduetatik ordaindu gabe daude 6.936 (144.927 euro), atxikita gelditu direnak harik eta Azvasek 78.449 euro itzuli arte, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan joan-etorrietako orduei dagozkienak.

Nabarmendu beharra dago Azvasek, 2009ko irailean, kontratua luzatzeko asmorik ez zeukala adierazi zuela, eta 2010eko martxoaren 30ean bukatutzat eman zen haren betebeharra.

V.2.4. Kontratuaren luzapena

Beste lehiaketa baterako deialdia eginda, kontratua esleipena egin bitarte luzatu zen. Esleipena 2010eko abuztuan egin zen, eta enpresa berari esleitu zitzaion kontratua. Epe horretan, 2010eko apiriletik uztailean, 50.000 ordu inguru fakturatu dira, milioi bat euroan.

Laburbilduz, hiru urteotan 120.000 ordu kontratatu ziren, baina egiatan 150.000 ordu inguru egin ziren; hortaz, kontratu-aldaketak egin behar izan dira. Ikusi denez, akatsak daude fakturretan, gutxienez ere 15.156 euro egiten dutenak, eta Azvasek erreklamazio bat aurkeztu du, 78.449 eurokoa,

joan-etorrietako denbora dela-eta. Abenduko faktura bat atxiki da, 144.927 eurokoa.

Esleipen-hartzaileak ez zuen 2010eko martxotik aurrera kontratua luzatu, baina zerbitzua ematen jarraitu zuen lehiaketa berria ebatzi arte (lehiaketan enpresa bera gertatu zen garaile).

V.3. ERREKURTSOA

2008ko otsailean kontratua interpretatzeko espediente bat abiarazi zen, eta urte bereko ekainean Gobernu Batzarrak ezarri zuen etxez etxeko laguntzako langileen joan-etorriak ez zitezela sar zerbitzua ematen den denboraren barruan.

Azvasek aldeztu du esku-hartzeko orduak, lan-kontratudun langileen lanorduren baliokidea baita, berekin daramala joan-etorrietako denbora.

Udalaren ustez, aldiz, zerbitzuaren garapenari egotz dakizkiokeen faktoreak, esaterako langileak harat-honat edo geldirik dauden tarteak, orduko ordaindu beharrekotik at gelditzen dira.

Ogasun alorreko bulego teknikoaren azterlan batean oinarrituta, Gobernu Batzarrak 2009ko martxoaren 17an erabaki zuen eskatzea 78.448 euro itzul zitezela, 2007ko ekitaldian eta 2008ko urtarriletik ekainera bitarte joan-etorrietan emandako orduak zirela eta.

Azvasek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen 2008ko ekaineko erabakiaren aurka, eta 2010eko urtarrilean auzitegiak Azvase enpresaren errekurtsua ezetsi zuen eta, hartara, arrazoa udalari eman zion.

V.4. BESTELAKOAK

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua udal plantillako, Azvase enpresako eta ASIMEC udal enpresako bost familia-langilerekin ematen da. Esku hartzeko erabakia auzo-unitateetako gizarte-langileek hartzen dute, udal koordinatzailearekin batera.

Enpresek kudeaketarako erabiltzen dituzten irizpideak ez datoz bat. Halatan, fakturatutako ordu bakoitzeko ordaintzen zaio Azvaseri, eta ASIMECi, berriz, funtzionatzeko ekarpen bat egiten zaio.

Bi enpresek erabiltzen dituzten kudeaketa-eremuak ezberdinak izateak eta zerbitzuan informazio homogeneousik ez egoteak eragiten dute ezberdintasunak egotea aztertutako datuetan eta azterlanetan, edo ez edukitzea beti eskueran behar den informazio guztia.

Halatan, adibidez, ikusten dugu ezberdintasunak daudela lan egindako orduen edo udalari fakturatutako orduen eta erabiltzaileei fakturatutako orduen artean. Ezberdintasun horiek sortzen dira zerbitzuari jakinarazi gabeko lan-aldaketen ondorioz, erabiltzaileari igortzen ez zitzaizkion laguntzarik gabeko egunen ondorioz eta arazo informatikoen ondorioz, zeren kalkuluak asteka egiten dira –hilean, lau–, eta ez egunka. 2007ko eta 2008ko ezberdintasunetan sartzen dira joan-etorriei dagozkien orduak, lehen aipatutakoak.

Adierazi digutenez, ezberdintasun horiek jada ez ziren adierazgarriak 2010ean; izan ere, udala, arazoaz jabetuta, ezberdintasunak zuzentzeko neurriak jartzen ari da.

Lanak esleitzeko –udal koordinatzaileak egiten du modu zentralizatuan–, lehenik eta behin saiatzen dira ASIMECen orduak betetzen, Azvasek baino ordu gutxiago dituelako, eta halakorik egin ezin bada, zerbitzua Azvaseri ematen zaio.

ASIMECek bere langile berekiak ditu 2009ko uztailetik aurrera, eta 2010ean beste oposizio bat egin du, eta, hartara, 2011tik aurrera 55 familia-langile edukiko ditu. Etkez etxeko laguntzan aurten 63.700 ordu egitea aurreikusten du.

Errealitatean, bi enpresek auzo guztietan lan egiten dute, eta etxe berean zerbitzu ematera ere irits daitezke, eta horrek, gure ustez, baliabideen aprobetxamendu egokia zaildu dezake.

Ondoko taulan ikus daiteke bi enpresen jardueraren laburpen bat. Ezin izan dugu udalak zuzenean emandako zerbitzuarekin alderatu, ez daukagularako horri buruzko daturik. Taulatik ondorioztatzen den informazioa baloratzeko, kontuan hartu behar dira ondokoak:

– Datuak hainbat iturritatik heldu dira, zenbait kasutan zenbatespenak dira, eta zenbaitetan ez dago horiek egiaztatzerik.

– Azvase enpresari egiatan lan egindako orduak ordaintzen zaizkio, eta ASIMECi, berriz, haren aurrekontua finantzatzeko ekarpen bat egiten zaio.

– ASIMEC, esan bezala, sortze-prozesuan egon denez, 2011tik aurrera uler daiteke zerbitzua normaltasunez emateko moduan egonen dela.

– Azvaseri egindako ordainketetan BEZa sarturik dago, eta ASIMECen kasuan ez da BEZa sartzen, funtzionatzeko ekarpen bat delako.

– Urteko lanaldiaren eta egiazko lanaldiaren arteko ezberdintasuna gertatzen da koordinaziorako eta prestakuntzarako emandako denboragatik.

– Bi enpresek koordinaziorako erabilitako denbora ezberdina da.

Taulatik ateratzen den informazioaren laburpen gisa, ondokoa esan dezakegu:

– enpresa bakoitzaren kudeaketa-ereduak eragin handia duela zerbitzuaren emaitzetan.

– aldea dagoela erabiltzailearentzako laguntza-orduen eta ASIMECen egiazko lan-orduen artean.

– aldea dagoela lan egindako orduen eta erabiltzaileei fakturatutakoen artean.

Asimec enpresak egindako zenbatespenen arabera, 2009an lan egindako 38.017 orduen erritmoa ezberdina izan da urtean zehar. Halatan, urteko lehen asteetan lan egindako orduen proiektzioaren arabera 33.000 ordu ateratzen dira, eta azken asteen arabera, berriz, 42.000 ordu.

Udalak txosten bat egin du EELZaren erabiltzaileen gogobetetasunari buruz; horren arabera, besteak beste, erabiltzaileek balorazio positiboa egiten dute zerbitzuari buruz, eta ez dute bi enpresen arteko bereizketarik egiten; izan ere, erabiltzaileek, oro har, ez dute bereizten langileak zer enpresatakoak diren, alderdi hori ez baita esanguratsua, erreferentea udala denez gero.

Kexak ez dira esanguratsuak, eta lanetarako esleitutako ordutegiei, langileen txandaketei eta prestazioaren denborari buruzkoak dira.

Laburbilduz, erabiltzaileek zerbitzuari buruzko iritzi positiboa dute; zerbitzua bi enpresek ematen dute, eta biak batera jarduten dira auzo guztietan, eta zeinek bere kudeaketa-eredua dauka; ez da homogeneizatu zerbitzura igorri beharreko informazioa, eta homogeneotasun falta horren ondorioz zaila da horren azterketa egitea eta ezberdintasunak eragiten ditu lan egindako orduen eta erabiltzaileei fakturatutako orduen artean.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

IRUÑEKO UDALAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO IRUZKINAK

Lehendakari agurgarri hori:

Iruñeko Udaleko Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrrak eskerrak eman nahi dizkio Comptos Ganberari, egindako lanarengatik nahiz etxez etxeko laguntza zerbitzua hobetze aldera egindako ekarpenengatik; izan ere, erakunde horrek ongi dakien bezala, ildo horretan ari gara lanean:

1. ASIMECek erabiltzaileei arratsaldeko ordutegian zerbitzu emateak aukera emanen du erabiltzaileak zerbitzua ematen duten bi entitateen artean birbanatzeko, halako moduan non zerbitzua optimizatuko baita zerbitzuaren efizientzia hobetuz.

2. ASIMECekiko kontratu-programa berriak aukera emanen du lan egindako orduak hobeki kuantifikatzeko eta, horrenbestez, informazioa homogeneizatzeko eta bi enpresen errendimendua konparatu ahal izateko. Aukera emanen digu orobat ASIMECen ordainsariak egiaz lan egindako orduetara egokitzeko.

3. Neurri horiek guztiek aukera emanen digute enpresa bakoitzari esleitutako zerbitzu-orduak hobeki kontrolatzeko, halako moduan non, baldin eta beharrezkoa bada, behar besteko denboraz aldatu ahalko baitira kontratuak. Gaur arte ez da posible izan; izan ere, txostenean esaten den bezala, ASIMEC enpresa publikoa sortze prozesuan izan da 2011ra arte, eta, hortaz, Azvaserekiko kontratua ezin izan da behar adina denboraz egokitu. 2011tik aitzina, ASIMEC zerbitzua errendimendu onenarekin emateko moduan egonen bide da.

Alorrrak berriz ere eskertu nahi ditu Iruñeko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko gomendioak, zeinak, zuk ondo dakizunez, betetzen ari baikara.

Adeitasunez,

Sin.: Fco. Javier Lorente Pérez